

# Entzefalopatia espongiforme transmitigarriak kontrolatzeko erregelamendu berria

Europako Batzordeak [2021/1176 \(EB\) Erregelamendua](#) argitaratu du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 99/2001 (EE) Erregelamenduaren zenbait eranskin aldatzen dituen entzefalopatia espongiforme transmitigarriei dagokienez.

Abuztuaren 8an indarrean jarriko den erregelamendu horren berritasun nagusiak honako hauek dira:

- Ahuntz-azienden entzefalopatia espongiforme transmitigarri positiboen kasuak genotipatzeko beharra ezartzen du.
- Erresuma Batuarekin zerikusia duen hausnarkari txikien adina zehazteko aukera bat indargabetzen du.
- Dardara atipikoa izanez gero, indargabetu egiten ditu zaintza intentsiboko betebeharrak.
- Zehaztu gabeko arriskua duen herrialde bateko behi-, ardi- eta ahuntz-azienden produktu eratorrien inportazio-baldintzak bateratzen ditu, behien entzefalopatia espongiformeko arrisku kontrolatua duen herrialde batetik EBra inportatzen diren kasuetarako.

Neurri horiek erlaxatu egiten dituzte 2001etik indarrean dauden entzefalopatia espongiforme transmitigarrien kontrolak, eta entzefalopatia espongiforme transmitigarriak prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren emaitza onen ondorio dira.

---

## Afrikako txerri-izurriaren (ATI) lehengo kasuak Alemaniako etxeko txerrietan

Afrikako txerri-izurriko (ATI) Alemaniako erreferentziazko laborategi nazionalak, Friedrich-Loeffler-Institut (FLI) laborategiak, uztailaren 15ean baieztatu zituen Afrikako txerri-izurriaren Alemaniako lehenengo kasuak, etxeko txerrietan.

Kaltetutako abeltzaintza-ustiategiak Spree-Neiße distrituko ekoizpen-baserri ekologiko bat —txerri bat hil zen bertan—, eta Märkisch-Oderland distrituko ustiategi txiki bat —bi txerriekin— dira. Baserri ekologikoa kontrol-eremu batean dago, basurdeetan hautemandako Afrikako txerri-izurriaren ondorioz deklaratu zena. Ustiategi txikia, berriz, orain arte Afrikako txerri-izurritik libre zegoen eremu batean dago. Oraindik ez dago argi nola iritsi den gaixotasuna bi ustiategi horietara, baina hipotesia da eremu horietako animalia basatietan hautemandako kasuen bidez izan dela.

Spree-Neiße distrituan hauteman ziren Alemaniako Afrikako txerri-izurriaren lehen kasuak basurdeetan, 2020ko irailean. Orduetik hona, 103 kasu baieztatu dira han, eta 261 Märkisch-Oderland distrituan.

*Iturria: FLI- Friedrich-Loeffler-Institut. Puntu urdinak: ATIaren kasuak basurde basatietan; puntu gorriak: ATIak kaltetutako etxeko txerrien ustiategiak.*

Bi kasuetan, txerriak hil egin dituzte, eta gorpuzkiak araudiarekin bat suntsitu dira. Horrez gain, tokiko agintaritzek murrizketa-eremuak ezarri dituzte foku horien inguruan. Ezin da txerri bizirik edo txerri-produkturik garraiatu eremu horietako baserrietatik.

ATIaren birusa basurdeetatik etxeko txerrietara transmititu daiteke kontaktu zuzenaren eta zeharkakoaren bidez. Infekzioa ahoz gertatu ohi da. Agente patogenoa oso egonkorra da, eta infektioso mantentzen da ingurumenean denbora luzez. Hauen bidez ere transmititu daiteke: haragiki gordinak edo behar beste kozinatu gabeak, kontaminatutako elikagaiak, ibilgailuak, arropa eta tresnak.

---

## **EBn hegazti-gripea zaintzeari buruzko 2020ko urteko txostena**

**Batzordearen 2005/94 (EB) Zuzentarauak ezartzen du EBko estatu kideek (EK) hegazti-gripearen (HG) zainketa egin behar dutela baserriko hegaztietan eta hegazti basatietan, eta emaitzak agintaritza arduradunari jakinarazi behar dizkiotela.**

Horretan oinarrituta, estatu kideak, Islandiak, Norvegiak, Suitzak eta Erresuma Batuak urtero ikuskaritza-programak ezartzen dituzte birusaren agerraldiak monitorizatzeko. Bildutako datuetan oinarrituta, EFSAk 2020rako txostena argitaratu du.

Mota horretako bigarren txostena da, eta estatu kideek zuzenean EFSari bidalitako datuekin egin da. Hauek dira txostenaren ondorio nagusiak:

- Guztira, 24.768 hegazti-establezimendutan (HE) egin ziren laginak, eta horietatik 46 seropositiboak izan ziren birusaren H5 anduiarentzat eta zazpi H7 anduiarentzat.
- HE seropositiboak hauteman ziren bederatzi estatu kideetan (Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Italia, Herbehereak, Polonia, Espainia eta Suedia) eta Erresuma Batuan.
- Aurreko urteetan bezala, HE seropositiboan ehuneko handienak uretako ehiza-hegaztien eta antzara ugaltzaileen haztegietan hauteman ziren.
- H5 eta H7 anduiarentzat proba serologiko seropositiboak izan zituzten 53 hegazti-establezimenduetatik zazpi emaitza positiboak izan zuten polimerasaren kate-erreakzioan (PCR), edo birologian birusaren H5 eta H7 anduietan; zazpi patogenotasun txikiko hegazti-gripean (LPAI) eta bat patogenotasun handiko hegazti-gripean (IAAP).
- Gainera, 13 herrialdek 748 hegazti-establezimenduren PCR emaitzak jakinarazi zituzten, eta

horiek ez zetozen bat gertakari serologiko seropositibo baten jarraipen-probekin (adibidez, establezimendu batzuetan PCR probak erabili ziren baheketarako). Hegazti-establezimendu horietatik 25 positiboak izan ziren hegazti-gripearen ARN birikorako. Eraitza positibo horiek Bulgarian, Estonian, Alemanian, Errumanian eta Eslovakian hauteman ziren.

- Guztira 18.968 hegazti basatiren laginak hartu ziren, eta 878 hegaztik izan zuten eraitza positiboa IAAP birusean.
- 14 herrialdek IAAP eraitza positiboa izan zuten hegazti basatien kasuak jakinarazi zituzten, eta hegazti-gripearen andui positibo guztiak, patogenotasun handikoak, H5 gisa identifikatu ziren.
- Hegazti positibo gehienak H5N8 anduiarekin kutsatu ziren, identifikatu gabeko N1, N3, N5 eta NA azpimoten kopuru txikiagoarekin.
- Gainera, 317 hegaztik eraitza positiboa izan zuten LPAI H7 edo H5 birusetan, eta 429 hegaztik eraitza positiboa izan zuten H5 eta H7 ez ziren hegazti-gripearen anduian; horiek 31 herrialdetan hauteman ziren.
- 2020ko baserriko hegaztien eta hegazti basatien ikuskaritzaren eraitzak eztabaidatzen eta alderatzen ari dira adituak, European hegazti-gripearen epidemiologiaren inguruan gaur egun dauden ezagutzekin, eta, bereziki, 2020. urtearen amaieran identifikatu zen H5N8 epidemiarekin.

---

## Tuberkulosiarekiko sentikorrek diren espezietan esne gordina saltzeko kontsiderazioak

**AESANek interpretazio-ohar bat argitaratu zuen duela gutxi esne gordina eta esne gordinaz eginiko esnekiak ekoitzi eta merkaturatzeari buruz, eta ohar horren bidez ezartzen dira behin tuberkulosiarekiko espezie sentikorre dagokienez aintzat hartu beharreko gutxieneko eskakizunak.**

Agentziak, [OIEren Lurreko Animalientzako Osasun Kodean \(2017\)](#) eta [EFSAren Iritzian \(2017\)](#) oinarrituta, argitu egin du honako hauek direla **853/2004 Erregelamendua aplikatzeari dagokionez** libre gisa adierazita ez dauden eskualdeetan edo probintzietan **tuberkulosiarekiko sentikorrek diren espezieak: ahuntzak, kamelidoak eta zerbidoak**. Halaber, ardiak ere espezie sentikorrek izango dira behietan eta/edo ahuntzetan gaixotasuna konfirmatu den talde baten parte badira, eta, betiere, haiekiko elkarbizitza estua badute.

Gaur egun, ahuntz-taldeein diagnostiko-proba ofizialak egiten zaizkie kaltetutako behiekiko elkarbizitza estua badute. Euren esnea gordin erabiltzen den gainerako taldeein dagokienez, oharraren bidez argitzen da behin-behineko ikuskapenak egin behar zaizkiela agintaritza eskudunak onetsitako ikuskapen-plan baten bitartez. Halaber, hori bera aplikatuko da beste espezie sentikorretan.

Hauek dira ikuskapen-plan horien gutxieneko eskakizunak:

- Ustiatetik **albaitaritza-aholkularitza** izan behar dute, zeinu klinikoak baieztatze eta gaixotasunik ez dutela bermatzeko diagnostiko-probak egiteko.

- **Hiltegietako aurkikuntzak** artxibatuta edukitzea.
- Urtero, diagnostiko-probak egitea **ugalketarako ahuntz**
- Gaixotasuna baieztatzen bada, **esne gordina berriz ere saldu ahal izateko**, 6 hilabetetik gorako abere guztiei **egin beharko zaizkie probak, eta emaitza guztiak negatiboak izango dira**; proba horiek emaitza positiboa izan zuen azken animalia kendu eta 42 egun igaro ondokoak izan beharko dira.
- **Ikuskapenen maiztasuna** eginiko beste proba batzuekiko bateragarria izan ahalko da.
- Industriarekiko **komunikazio-sistema bat ezartzea**, elikagaien segurtasuna arriskuan jartzen duen edozein aldaketaren berri emateko esnekien zentroari.

Halaber, ahuntzen kasuan, autonomia-erkidegoek eskakizun gehigarriak ezar ditzakete euren lurraldeetan, eta urteko probak ez dira beharrezkoak izango agintaritza eskudunak hori egokitzen jotzen badu arriskuen ebaluazio bat egin ondoren.

---

## **Abereen osasuna Espainian: Niloko mendebaldeko sukarraren eta mihi urdinaren gaitzaren kasuak**

Algeteko Albaitaritza Laborategi Nagusiak (LCV) baietsi egin du aurtengo FVNOaren emaitza serologiko positiboa. Tarifako (Cádiz) ekido zentinelan batean antzeman da.

FVNOa Niloko mendebaldeko birusaren (VNO) andui jakin batzuek eragiten duten gaixotasun birikoa da, mundu osoan agertzen dena. Batik bat **Culex generoko eltxoen ziztadaren bidez transmititzen da**, eta eltxoa-hegaztia-eltxoa transmisio-zikloaren ondorioz mantentzen da.

Hegazti migratzaileek rol garrantzitsua betetzen dute euren ibilbideetan birusa mantentzeko eta hedatzeko; izan ere, gaixotasunaren gordailutzat hartzen dira eta birusa mantentzen dute zenbaitetan inolako sintomarik izan gabe. Gizakiak eta ekidoak birusaren azken ostalaritzat hartzen dira; hortaz, ez dute gaixotasuna transmititzen.

FNOari buruzko informazio gehiago: [Gaixotasun fitxa: Mendebaldeko Niloko sukarra gaixotasuna \(West Nile virus\)](#)

Balear Uharteetako Albaitaritza Zerbitzu Ofizialek mihi urdinaren gaitzaren 4 serotipoaren zirkulazioa antzeman dute Pollençako (Mallorcako iparraldea) ustiategi bateko behi zentinelan batengan.

Ustiategi zentinelak 4 behi eta 19 ardi ditu; Espainian ezarritako Mihi Urdinaren Gaitzaren Zaintzarako Programa Nazionalean hartzen du parte. Balear artxipielagoa orain arte gaixotasunik gabeko eremua izan da, baina arrisku-eremutzat hartzen da programa horretan; hortaz, bertan, gaixotasunaren zaintza sendoa egiten da. Gainera, udalerrri bereko ustiategietan ardien 9 susmo kliniko jakinarazi dira.

2003an antzeman zen azkeneko aldiz mihi urdinaren gaitza Balearretan.

Mihi urdina gaitz biriko ez-kutsakorra da eta hainbat espezieetako hausnarkariei eragiten die. Gainera, mundu mailan, galera ekonomiko eta ekoizpen-galera handiak sortzen ditu. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasuna da eta ez die gizakiei eragiten.

Batik bat Culicoides generoko eltxoen ziztadaren bidez transmititzen da eta eltxo horiek kutsatutako animaliak ziztatu eta haien odola xurgatzean kutsatzen dira. Hala, birusa animalia osasuntsuetara hedatzen da.

Mihi urdinaren gaitzari buruzko informazio gehiago: [Gaixotasun fitxa: Mingain urdina](#)

---

## [Sukar aftosoaren aurkako kontrol-neurrien ebaluazioa EBn](#)

**EFSAk EBk eskatutako txosten-multzoko laugarren txostena argitaratu berri du. Horren bidez, sukaraftosoaren aurka aplikatutako kontrol-neurrien eraginkortasuna ebaluatu du.**

Txosten-multzoko [aurreko beste 3 txostenetan](#) erabilitako **analisi-metodologia berbera** erabili dute. Txosten horien bidez **A zerrendako gaixotasunak aztertu** dituzte, bat etorritik animalia-gaixotasun transmitigarriari buruzko 2016/429 Erregelamenduari (EB).

Kontrol-neurri horiek ebaluatzeko **zenbait agertoki diseinatu** ziren, eta ebaluazioa hasi aurretik adostuta utzi zituzten. Berrikuspena kontrol-neurrien **alderdi hauetan** oinarritzen da:

- Gaixotasuna detektatzeko laginketa-prozedura klinikoak eta laborategikoak; **laginketa-prozedura espezifikoak behar** dira agertoki bakoitzerako.
- Baieztatutako agerraldietako zein agerraldi susmagarrietako **eremuetako jarraipen-aldia**.
- Mugatutako **eremuen tamaina**.

Hona hemen ondorioak:

- **21 eguneko** jarraipen-aldia eraginkortzat jo zen. Era berean, eraginkortzat jo zen neurri murriztaileak mantentzea: **babes-eremuan 15 egunetz eta zaintza-eremuan 30 egunetz**.
- Babes- eta zaintza-eremuek kaltetutako ustiatagietako infekzioen % **99 baino gehiago** hartzen dute transmisioa baldin badago.
- Babes- eta zaintza-eremuetako **transmisiorako probabilitateak % 4,8 eta % 0,3** dira, hurrenez hurren.

Ebaluatutako agertoki bakoitzerako eskaintzen diren gomendioen **helburua da Europako Batzordeari laguntzea lege-testu berriak osatzen**, baita sukaraftosari lotutako *ad hoc* eskabide gomendagarrietarako ere.

---

## [Afrikako txerri-izurriaren egoera Europan -](#)

# eguneratzea

**EFSAk txosten bat argitaratu du berriki Afrikako txerri-izurriaren (ATI) Europako egoera epidemiologikoa eguneratzeko, 2019ko irailetik 2020ko abuztura bitarteko epeari dagokiona**

Irizpen horretan, ATIaren bilakaera-dinamika eta -patroiak aztertu dira kaltetutako herrialde guztietan, ATIaren lehen kasua txerri eta basurdeetan hauteman zenetik bildutako lagin positiboen (PCR eta ELISA) emaitzen bidez.

Oro har, hedapena arina da ATIak kaltetutako eremuetan basurde-populazio handiagoak daudenean.

**Basurde-populazioetako hedapen-maila** aztertzeke, jakinarazitako kasuak berrikusi ziren, eta kalkulatu zen zenbat sailka litezkeen jatorri bereko bigarren mailako kasu gisa, epidemiaren lehen eta azken urtearekin alderatuta.

ATIa basurdeetan agertzeko **arrisku-faktoreen ebaluazioa** egiteko, azterketa bibliografikoa egin zen. Errumaniaren kasuan, adibidez, arrisku-faktore nagusiak ingurumen-faktoreak, basurdeen ugaritasuna eta ehizatzen den eremuetan etxeko txerriek basurdeekin harreman zuzena izateko dagoen aukera handia izan ziren.

Basurdeetan ATIa egiaztatu den eremuetatik gertuko **eremu libreetan aplikatutako prebentzio-eta kontrol-neurriei** dagokienez, txostenean azpimarratu egiten da neurri horiek eraginkorrak izango direla eremu librean **basurde-populazioa nabarmen murrizten** bada, hedapena geldiarazteko, eta eremu horiek nahiko zabalak izan behar dutela.

ATIaren agerraldi baten aurrean, txostenean adierazten da eremu libreetan basurdeak prebentzioz hiltzekotan, prozesu hori **agerraldiaren hasieran eta hilabete gutxi batzuetan** gauzatu behar dela. Halaber, eremu horiek **kaltetutako eremutik** nahiko **urrun** egon behar dute, infekzioari kaltetutako eremuaren barruan eutsi ahal izateko; izan ere, birusa oso arin hedatzen da txerrien eta basurdeen artean.

---

## Gaixotasun zoonosikoak aztertzeke adituen nazioarteko talde berria

**FAO, OME, OIE eta PNUMA erakundeek goi mailako adituen talde bat aurkeztu dute, pandemiak eragiteko gaitasuna izan lezaketen zoonosia ikertzeke, *One-Health* ikuspegiarekin.**

Taldeak aipatutako erakunde horiei aholkua emango die, epe luzerako mundu mailako plan bat prestatze aldera, zoonosia prebenitzea xede, hala nola IAAP H5N1, MERS, Ebola, Zika eta une honetan bizi dugun COVID-19aren pandemia.

Modu orokor batean, honako hauek izango dira emango dituzten lehen pausoak:

- animalietatik pertsonetara eta alderantziz transmisioa egotea zehazten duten faktoreak sistematikoki analizatzea.
- transmisio-arriskua ebaluatzea.
- zaintza-ereduak prestatzea.
- agerraldiak prebenitu eta kontrolatzeko jardunbide egokiak zehaztea.

*One-Health* ikuspegia aplikatzea; horrek lotu egiten ditu pertsonen, animalien eta ingurumenaren osasuna, eta garrantzi berezia ematen die diziplina anitzeko taldeei arriskuen ebaluazioa gauzatzeko.

Oro har, baliabide naturalen oinarrian presioa egiten duten giza jardueren eragina aztertuko dute (esaterako, elikagaien ekoizpena eta banaketa, azpiegiturak, nazioarteko bidaiak eta merkataritza), horiek gaixotasun zoonotikoak agertzea eragin lezaketelako.

Batzordeak nazioarteko ikerketa-estrategia bat garatuko du, inpaktu handiko zoonosiak prebenitu eta kontrolatzeko. Horretarako, hainbat gomendio emango ditu, honako maila hauetan aplikatu daitezkeen: mundu maila, eskualdea, estatua eta udalerrria

**[Ildo horretatik, EFSAk duela gutxi argitaratutako albiste batean, One-Health printzipioak bere osotasunean aplikatzeko eta legeak ikuspegi horretatik abiatuta egiteko beharra azpimarratzen du. Europako Itun Berdeak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek erabaki hori babesten dute.](#)**

EFSAren aburuz, ikuspegi hori ez zaie soilik potentzial zoonosikoa duten arrisku biologikoei aplikatu behar, baizik eta baita gizakien eta animalien osasunari eragin diezaiokkeen ingurumen-mikrobiomari ere.

Azpimarratzen du beharrezkoa dela elikakateak eta sistemak segurtatu eta indartzea, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezkeen.

Helburu hori erdiesteko, EFSAk **diziplina anitzeko lantaldeen alde egiten du bere antolakuntzan, baita Europako beste agentziekin (ECDC, ECHA, EEA, EMA eta JRC) eta beste organismo batzuekin lankidetzan aritzearen alde ere.**

Hori dela eta, datorren urteko ekainean egingo den EFSAren hurrengo konferentziaren izenburua **[One-Health, Environment, Society 2022](#)** izango da, eta bertan aurkeztuko da **EFSAren 2027ra begirako estrategia berria; estrategia horren lehentasunetako bat arrisku-ebaluazioak garatzea da, One-Health ikuspegiarekin, elikakate osoan aplikatzeko, horrek aukera emango baitigu etorkizunean One-Health politiken beharrazanez erantzuteko.**

---

## **[Afrikako txerri-izurria transmititzeko arriskuaren ebaluazioa](#)**

EFSAk txosten bat argitaratu du berriki Afrikako txerri-izurriaren birusa animalien elikaduraren, oherako materialen eta kaltetutako eremuetan egon diren animalia biziak garraiatzeko ibilgailuen bidez EBko eskualde ez kaltetuetan sartzeko arriskua ebaluatzeko.

Irizpenak ezartzen du **ezin dela baztertu** birusa **zabaltzeko arrisku potentziala**, bereziki **basurdeak dauden** eremuetan. Hala ere, uste da **arriskua txikiagoa dela infektatutako animalia bizien arteko kontaktuaren (txerria eta basurdea) eta elikaduraren (elikadura-hondakinekin) bidez baino.**

Ebaluazioa honela egin zen:

- Birusaren bizirauteko gaitasunari buruzko kontsulta bibliografikoa.
- Bibliografian jasota egon ez daitekeen informazioa biltzeko kontsulta publikoa.
- Aritu talde batek egindako balorazioa txerri-ustiategietan sartzen diren produktuen kutsadura potentzialari buruz.
- Produktu bakoitzaren kutsatze-arriskua aurreikusten duen eredu baten garapena.

Azterketaren emaitza gisa, talde hauek sailkatu ziren birusa transmititzeko duten arrisku handienetik txikienera:

1. Pentsu konposatuak forma likido eta/edo pelletetan.
2. Ibilgailuak
3. Pentsuetarako lehengaiak.
4. Oheetarako eta aberasteko materialak, bazkak, proteina hidrolizatuak eta plasma-proteinak.

**Ustiategietan** ezarritako **biosegurtasuneko neurriak** ezinbestekoak dira Afrikako txerri-izurri kontrolatzeko. Azken norakoa eskala txikiko ustiategi bat denean, eskala handi batekoa izan beharrean, transmisio-arrisku handiagoa dago, biosegurtasun-maila baxuagoa delako. **Ibilgailuen** kasuan, garrantzitsua da, halaber, biosegurtasuneko neurriak ezartzea txerriak kaltetutako eremuetara edo horien barnean garraiatu badira. Kamioiak joan-etorrian ibiltzen badira kaltetutako eremuen eta eremu ez kaltetuen artean, arriskua murrizteko neurri egokia da animaliak ustiategietatik distantzia batera dauden kontzentrazio-zentroetatik edo karga-nasa eramangarrietatik kargatzea.

Oro har, **deskontaminazio- eta biltegiatze-prozesu egokiak zorrotz betetzea** gomendatzen da, horiei esker birusa kutsatzeko aukera murriztu egiten baita.

---

## **Hegazti-gripearen kontrako babes- eta zaintza-gune berriak Europan**

**EBk duela gutxi argitaratu du 2021/450 (EB) Betearazpen Erabakia eta, horren bidez, Europan HGren auka borrokatzeko muga geografiko berriak ezarri ditu.**

Batzordeak Txekiak, Danimarkak, Alemaniak, Frantziak, Poloniak eta Suediak hartutako neurriak aztertu ditu, 2020an eta 2021ean eskortako hegaztietan eta gatibu zeuden beste hegazti batzuetan izandako agerraldien ondorioz.

EBko merkataritza ez nahasteko eta hirugarren herrialdeek merkataritzan justifikatu gabeko oztupoak ez jartzeko, beharrezkoa izan da, eragindako herrialdeekin batera, 2005/94/EE Zuzentarauan xedatutakoa betez adostutako babes- eta zaintza-gune berriak ezartzea.



Hori horrela, erabaki berri honetan 2020/1809 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskinaren aldaketa islatzen da. Bertan, herrialde horietako 2005/94/EE Zuzentarauan xedatutakoa betez herrialde horietako arduradunek behar bezala ezarritako babes- eta zaintza-gune berriak eta horietan aplikatu beharreko murrizketen iraupena jasotzen dira.